

ORDENANTZA, EZKONTZAK BAIMENDU ETA EGITEKO, ETA HERIOTZAGATIK ETA JAIOTZENGATIK AGUR ZIBILAK ETA OMENALDIAK ARAUTZEN DITUENA

Prozeduraren hasiera

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da horrelako ekitaldien baimena eta egitea arautzea Irurtzongo Udalaren mugapean.
2. artikulua. Alkateak eta/edo hark eskuordetzen duen zinegotziak emanen du ekitaldi horietarako baimena, betiere Irurtzongo Udalak jaso ondoren eskabidea zuzentzen duen ahaideak edo pertsonak bidali beharreko agiriak.

Ezkontzetarako arauak

3. artikulua. Ezkontza zibila Irurtzongo Udalean egin nahi dutenek, Erregistro Zibilean baimena eskuratua dutela, eskabidea aurkeztu beharko dute Udal honetan, eta horretarako emanen zaien galdetegia erantzun beharko dute.
4. artikulua. Irurtzongo Udalean urteko egun guztietan egiten ahalko dira ezkontza zibilak batzar gelan, alkatearekin eta/edo hark eskuordetzen duen zinegotziarekin adosten den orduan.
5. artikulua. Ezkontza zibila egiteko eskabidea bertan azaltzen diren lau pertsonen NANarekin zein pasaportearekin batera eginen da (jatorrizkoa eta fotokopia, konpultsatuta izateko).
6. artikulua. Egunaren, orduaren eta aretoaren erreserbak betiere eskatzeko hurrenkeran eginen dira eta ematea Udalak areto horiek erabiltzeko duen beharraren menpe egonen da.
7. artikulua. Zeremonia horrela eginen da:

Ekitaldia hasiko da alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak honakoa esanez:

"..... jaun/andrearen eta ..... jaun/andrearen ezkontza zibila egiteko bildu gara, beraiek ere hemen direla. Ezkondu nahi dutela ulertzen dut eta kode zibilaren 58. artikuluan ezarritakoarekin bat, ezkongaien arteko harremanak arautzen dituzten testuak irakurriko ditut.

Kode zibilaren 66. artikulua:

"Ezkontideak berdinak dira eskubideetan eta betebeharretan".

Kode zibilaren 67. artikulua:

"Ezkontideek elkar errespetatu eta lagundu behar dute eta familiaren interesa zaindu".

Kode zibilaren 68. artikulua:

"Ezkontideek elkarrekin bizi, leialtasuna zaindu eta elkarri lagundu beharko diote. Horrez gain, etxeke zereginak eta aurrekoen eta ondorengoek eta beren kargura dituzten menpeko pertsonen zaintza partekatuko dute".

Agindu hauen edukien berri izanik, honako galderei erantzun behar diete:

..... jaun/andrea, ..... jaun/andrearekin ezkondu nahi duzu eta ekitaldi honetara modu kontziente, aske eta boluntarioan etorri zara?

..... jaun/andrea, ..... jaun/andrearekin ezkondu nahi duzu eta ekitaldi honetara modu kontziente, aske eta boluntarioan etorri zara? (Eraztunik badago, eraztunak eman).

Legeak ematen didan eskumen eta ahalmenez baliatuz, ezkontza bidez batzen ditut ..... jaun/andrea eta ..... jaun/andrea.

8. artikulua. Ezkontideek, lekukoek eta alkateak edo zinegotziak aktaren lau aleak sinatuko dituzte eta Udalaren zigiluarekin zigilatuko dira. Akta bat Udalean gordeko da, beste bana ezkontideei emanen zaie ziurtagiri gisa eta laugarrena Erregistro Zibilera igorriko da bertan inskribatzeko.

Agur zibiletarako eta jaiotzetarako (omenaldietarako) arauak

9. artikulua. Irurtzungo Udalean horrelako ekitaldia egin nahi dutenek, horretarako eskabidea aurkeztu beharko dute Idazkaritzan.

10. artikulua. Horrelako ekitaldietarako eskabideak oso azkar tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen baitu. Tramitatzeko, eskua duen pertsonari igorriko zaizkio.

11. artikulua. Eskabideetan honako datuak agertuko dira:

Interesdunaren edo haren familiakoren izena, deiturak, helbidea eta identifikazioa.

Eskabidean adierazi beharko da zer egunetan eta zer ordutan egin nahi den agur zibila.

Eskabidea zein tokitan eta zein egunetan aurkezten den.

Eskatzailearen sinadura edo, bestela, edozein bide erabili beharko da haren gogoia benetakoa dela frogatzeko.

12. artikulua. Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak finkatuko du ekitaldia zer egunetan eta zer ordutan egingen den.

13. artikulua. Eskabidea ikusita, alkateak, edo hark eskuordeturiko zinegotziak omenaldia Udalaren zein aretotan egingen den erabakiko du. Osoko Bilkuren aretoa erabiliko da, oro har.

14. artikulua. Omenaldiak astelehenetik igandera egingen dira, eta beharrezkoak diren udal baliabideak erabiltzen ahalko dira.

15. artikulua. Ekitaldi horietarako 30 minutu emanen dira gehienez.

16. artikulua. Aretoen egoera behar bezalakoa izan dadin, ekitaldian parte hartzen dutenek ez dute barrenean dependentziak kalte ditzakeen deus egingen.

17. artikulua. Ekitaldiaren hotsanditasunak eskatzen duen modukoa izanen da aretoa. Hala ere, familiartekoek edo adiskideek aretoa apaindu edo egokitu nahi badute, udal arduradunari behar bezain garaiz jakinarazi beharko diote, hark behar den erabakia har dezan. Tokiaren harmonia eta ezaugarriak begiratuko dira beti, eta haien kontura izanen dira apainketa eta egokitze gastu guztiak.

18. artikulua. Ordenantza honetan ezartzen ez den orotan, udal arduradunen jarraibideak bete beharko dira.

#### AZKEN XEDAPENA

19. artikulua. Ordenantza honek indarra hartuko du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu ondoan eta lege beraren 65.2 artikuluan ezarritako 15 eguneko epea iraganda.

Irurtzunen, 2008ko irailaren 23an.-Alkatea, Juan José Iriarte Vitoria.